



EBAZPENA, 2012ko urtarrilaren 30ekoa, Langileriaren Kudeaketa zuzendariarena. Erabaki honen bidez aditzera ematen da noiz egingo den Balorazio Batzordeetako osakideen zozketa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko unibertsitatekoak ez diren irakasleen kidegoetako lekualdatze-lehiaketan, Maisu-maistren kidegokoan izan ezik, parte hartu duten funtzionarioek alegatutako merezimenduak balora ditzaten.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak 2011ko abenduaren 16an emandako Aginduaren bidez (2012ko urtarrilaren 10eko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko unibertsitatekoak ez diren irakasleen kidegoetako langile funtzionarioen arteko autonomia mailako lekualdatze-lehiaketarako deialdia egin zen. Agindu horren hamazortzigarren oinarrian ezarritakoarekin bat etorritz, ondokoa

ERABAKI DUT:

Lehenengoa. -Aditzera ematea Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko unibertsitatekoak ez diren irakasleen kidegoetako lekualdatze-lehiaketan, Maisu-maistren kidegokoan izan ezik, parte hartu duten funtzionarioek alegatutako merezimenduak baloratzeko, I. Eranskineko puntuazio-baremoko 5.1, 5.2, 6.1, 6.2 eta 6.3 atalei dagokienez, Batzordeetako partaideen zozketa 2012ko otsailaren 10ean egingo dela, eguerdiko 12:00etan, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzan (Donostia-San Sebastian, 1, Lakua II. eraikina, 3. solairuan Vitoria-Gasteiz).

Bigarrena.- Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-tauletan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren web orrian <http://www.irakasle.net> edo <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>, emango da argitara aipatutako zozketaren emaitza aditzera ematen duen Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren ebazpena.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urtarrilaren 30a.

Langileriaren Kudeaketa zuzendaria

JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA.